



ERREZILGO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN ERAGINAREN ATARIKO TXOSTENA

Aurrekariak

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 lege orokorrak, otsailaren 27koak, 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hiri antolaketako plan orokorrek (HAPO) ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa prozedura jarraitu behar dute derrigorrez. HAPOk, halaber, planen ingurumen ebaluazioari buruzko estatuko araudiaren aplikazio esparruan daude.

2009ko urriaren 2an, Errezilgo Udalaren idatzi bat jaso genuen GFAko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan. Eta idatzi horretan, Errezilgo HAPO tramitatzen hasiak zirela jakinarazi zitzaigun, Planaren ingurumen ebaluazioa egiteko erreferentziako agiria eskatuz. Xede horri begira, udalerriko ingurune fisikoaren atariko azterketa bidali zuen Udalak, proposatutako erabileren planoarekin batera.

Jasotako dokumentazioaren argitan, eta ukitutako administrazio eta erakundeei bidezko kontsultak egin ostean, Errezilgo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko Erreferentziako Agiria⁽¹⁾ formulatu eta plazaratu zuen Ingurumeneko zuzendari nagusiak, 2010eko otsailaren 9an. Agiri horretan, egindako kontsultei emandako erantzunak jasotzeaz gain, planaren aplikazio esparruaren ingurumen irizpideak adierazi ziren, esparru horretako ingurumen arloko interes bereziko baliabide eta espazioak identifikatu ziren, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazioak izan beharreko edukia eta irismena zehaztu.

Errezilgo Udalak 2015eko uztailaren 9an egindako osoko bilkuran, Hiri Antolaketako Plan Orokorraren dokumentua jendaurrean ikusgai jartzeko tramitea betetzea erabaki zuen, horrekin batera ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa ere argitara emanez.

Espediente hori abiarazi zenean, artean ez zegoen indarrean plan eta programen ingurumen arloko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura erregulatzen duen 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa; ezta ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ere. Beraz, arau horien xedapen iragankorretan ezarritakoari jarraituz, ingurumen eragina, kasu honetan, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 9ko 183/2003 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorri egingo da, plan eta programa jakin batzuen ingurumenaren gaineko ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, ere kontuan hartuta.

HAPOko proposamenen deskripzioa eta Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren edukia

Hauek dira Errezilgo HAPOren Aurrerapenean jaso diren antolaketa proposamen nagusiak:

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua

Aurrerapenean ezarritakoaren arabera, zonakatzeko proposamenaren helburua da Errezilgo lurzoru urbanizaezineko natura, paisaia eta produkzio arloko balioak mantentzea, sustatzea edo biziberritzea; eta horretarako, erabilerak lurraldearen berezko xedeari jarraituz, duen harrera gaitasunaren arabera, eta destinoaren gaur egungo egoera kontuan hartuta esleitzea.

Helburu hori lortze aldera, eta lurralde antolaketan oinarrituta betiere, Planak udalerriko lurzoru urbanizaezinaren antolamendu kategoria hauek definitu ditu, "Landa eremu" gisa izendatuta:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Z.1. *Babes berezia*. Babes figuraren bat baduten eremuei bakar-bakarrik aplikatzen zaie; kasu honetan, Pagoetako parke naturalaren inguruko eremua eta Natura 2000 Sareko Hernio-Gatzume eremua.

Z.2. *Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala*. Berez nekazaritzarako diren lurzoruak jasotzen dira kategoria honetan, hau da, batez ere belardi, larre, bazka-labore eta nekazaritzako erabilera eta jardueretarako bideratuak daudenak. Kategoria honen barruan bi azpikategoria bereizten dira, duten gaitasunaren eta produktibitatearen arabera: “komuna” eta “balio estrategiko handikoa”.

Z.3. *Basogintza*. Kategoria honetan sartzen dira nabarmen basogintzara bideratutako eremuak, bai ustiapenaren edo ekoizpenaren ikuspegitik begiratuta, eta bai babes ikuspegitik begiratuta ere.

Z.4. *Mendi-larreak*. Kategoria honetan sartzen dira goi mendietako abeltzaintzako eremuak, hau da, ingurumenaren, paisaiaren eta kulturaren ikuspegitik begiratuta balio handia duten inguruneak.

Z.5. *Ingurumenaren hobekuntza*. Kategoria honetan sartzen dira erauzketa jarduerak narriatutako esparruak.

Z.6. *Lur gaineko uren babesa*. Honetan sartzen dira EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planean mugatutako ur ibilguak.

Antolamendu kategorien arabera egin den antolaketa hori osatzeko, baldintzatzaile gainjarri hauek zehaztu dira:

- C.1. Landare-formazio interesgarrienak.
- C.2. Faunaren intereseko eremuak (bisoia kudeatzeko eremuak)
- C.3. Korridore ekologikoen sarea
- C.4. Paisaia katalogatuak
- C.5. Interes geomorfologikoko eremuak
- C.6. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak
- C.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak

Aurrerapen agirian aurreikusi den lurzoru urbanizaezineko antolamenduari buruz esan behar dugu, definitu diren kategoriak bat datozela lurralde antolaketan adierazitakoekin, eta egokiak direla udalerriko lurzoru urbanizaezineko balio naturalak eta nekazaritza balioak babesteko. Hala eta guztiz ere, HAPOk kasuren bat edo bestetan zehaztu eta finkatu egin beharko du Aurrerapenean oso gaineratik deskribatu diren kategoria horietako bakoitzak zein aplikazio esparru izango duen; eta esparru horietako bakoitzeko erabilera eta jarduera sustatuak, onargarriak eta debekatuak modu argian eta zehaztasun osoz arautuko ditu.

Bizitegi garapeneko jarduerak. Udalerrian, gaur egun, 271 etxebizitza daude guztira (horietatik 181 okupatuak eta 90 hutsak). Aurrerapenean proposatu da, HAPOren indarraldian zehar (10 urte inguru, dokumentuaren arabera) beste 35 etxebizitza eraikitzea, hau da, aurreko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoak baino 6 etxebizitza gutxiago; horrek % 13ko gehikuntza dakar oraingo etxebizitza kopuruarekin alderatuta, eta bizitegi erabilerara bideratutako lurzoruan ere % 9,20ko gehikuntza, oraingo okupazio mailarekin alderatuta.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Bizitegirako jarduera guztiak hirigunean kokatu dira, alde zaharraren ekialdean dauden lau hiri-areatan eta sektore urbanizagarri berri batean; eta etxebizitza gehienak dentsitate txikiko urbanizazioetan egitea planteatu da, familia bateko edo biko etxeetan. Zehazki, proposatu diren 35 etxebizitza horietatik 15 etxebizitza-blokeetan eraikiko dira, eta gainerako 20 etxebizitzak familia bakarrekoak edo bikoak izango dira, eraikin bakanetan edo elkarri atxikita.

Jarduera ekonomikoak ezartzeko jarduerak. Indarrean dagoen egiturazko antolamenduak Domusa aldeko industri eremua zabaltzea aurreikusten du; eta horretarako, 18.281 m²-ko sektore urbanizagarria mugatu du, baina ez da egikaritu. HAPOn Aurrerapenean kalifikazio hori mantentzea proposatu da; eta horrela, datozen 10 urteetan sor litekeen industri erabilerako lur premia betetzat jo dute.

Ekipamendu eta azpiegituretarako jarduerak. Aurrerapenean, ekipamendu eta azpiegiturekin lotutako jarduera hauek aurreikusi dira hirigunean eta Domusa eremuan:

- Aisialdirako ekipamendu berria sortzea udalerraren erdialdean, eta jada badauden gainerako ekipamenduekin lotzea, oinezkoentzako bideen bitartez.
- Belamendu Berri baserriaren iparraldean aparkaleku berria egitea, eta horrela, gaur egun aparkalekurako erabiltzen diren espazioen zati bat (San Martin elizaren inguruan) oinezkoen zirkulaziorako berreskuratzea.
- San Martin kaletik Basabil Txiki baserri aldera jaisten den kalea ikastolaren hegoaldean barrena luzatzea, eta Ezama auzo aldera doan landa-errepidearekiko bidegurutzea Belamendi eta Belamendi Berri baserrien artean egitea.
- Udaletxearen ondotik igotzen den kalea luzatzea, eta berriro ere hirigunearen behealdean lotzea GI-2634 errepidearekin.
- 800 m²-ko lur eremua gordetzea, ura tratatzeko instalazio bat eraikitzeko.
- Domusa eremuaren eta GI-2634 errepidearen arteko bidegurutzea hobetzea eta handitzea, zabaldua eta ikusgarritasun handiagoa emanda, eta gune horretako segurtasuna hobetzeko neurriak ezarrita.

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren edukia, eta Erreferentziako agiriarekiko duen egokitzapena

Aurrerapen agiri horretan jaso den ingurumen eraginaren baterako ebaluazioan (IEBE) 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean jasotako edukien eskema garatu da; izan ere, dekretu horrek erregulatzen baitu ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura. Era berean, ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenak egiteko, plan eta programa jakin batzuen ingurumenaren gaineko ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, I. eranskinean ezarritakoari jarraitu zaio. Dokumentua idazterakoan aintzat hartu da, halaber, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honek egindako Erreferentziako Agiriaren⁽¹⁾ edukia, nahiz eta agiri horretan eskatutako eduki eta azterketa guzti-guztiak garatu ez diren.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Bestetik, azterketa idatzi zenetik denbora luze joan denez, edukien zati bat eta arau-erreferentzia batzuk eguneratu egin behar dira, indarrean dagoen ingurumen araudira moldatzeko eta idatzi zenetik finkatu diren herriko zein lurraldeko iraunkortasun irizpide jakin batzuetara egokitzeko.

Azterlan horretan, hasteko, Planaren helburu estrategikoak deskribatu dira; gero, aurreikusitako jardueren laburpena egin ostean, beste plan eta programa batzuekin izan litzaketen elkarreragina aztertu da, eta ez da antzeman plan horiekiko bateraezintasun bat bera ere.

Antolatutako esparruaren ingurumen baldintzen analisi, diagnostiko eta balorazioari buruzko atalean, udalerriko natur baliabideen aprobetxamenduak eta lurzoruaren gaur egungo erabilerak deskribatu dira. Era berean, Planean aurreikusitako jarduerak gauzatzearen eragina jasan lezaketen ingurumen aldagaiak identifikatu dira, inguruan dauden balio handiko baliabideak bezalaxe.

Hautabideen ingurumen analisiari dagokionez, azterketan egin den gauza bakarra "0" hautabidea –udalerraren egiturazko planifikazioa ez ukitzeko aukera– baztertzea izan da. Eta adierazten da oraingoz hautabide bakarra hartu dutela aintzat, prozesuaren bilakaerak berak erakutsiko dituelako aurrerantzean aztertu beharreko hautabide berriak.

Ingurumen eraginak identifikatu eta baloratzeari buruzko atalean, hasteko, Planaren ingurumen arloko eragin orokorrak deskribatu eta baloratu dira; eta gero, jarduketa batzuek eta besteek eragingo dituzten ondorioak. Identifikatutako inpaktu guztiak "*bateragarri*" edo "*moderatu*" gisa kalifikatu dira, Domusako industrialdea handitzeak eragingo dituenak izan ezik. Jarduketa horrek faunarengan eragingo dituen inpaktuak eta arrisku geoteknikoak "*larri*" gisa kalifikatu dira, baldin eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ez badira.

Aurrerapenaren 5.6 apartatuan, hartu beharreko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak proposatu dira, eta era berean, HAPO garatzeko plan eta programak diseinatzeko irizpide eta jarraibide orokorrak ezarri dira.

Azterketa horretan, azkenik, Planaren ondorioak ikuskatzeko programa bat sartu da, jarraipena egiteko adierazle sail bat barne hartuta, eta laburpen agiria.

Aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertutik, eta 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, 3. eta 5. artikuluetan xedatutakoa, hala nola 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44.2. artikuluan xedatutakoa aplikagarria denez, eta 3/2015 Foru Dekretuak, ekainaren 24koak, xedatutakoa ere kontuan hartuta, Ingurumeneko zuzendari nagusi honek

XEDATU DU

Lehenik.- Errezilgo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumen eraginaren atariko txosten hau egitea.

Bigarrenik.- Errezilgo Hiri Antolaketako Plan Orokorra tramitzeko prozesuan zehar, eta plan hori behin betiko onartu aurretik, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziotik ondorioztatutako xedapenez gain, aintzat hartu beharko dira ingurumen eraginaren atariko txosten honetatik ondorioztatzen diren ingurumen arloko zehaztapenak ere. Ahal bada behintzat, ingurumen arloko xedapen guztiak bereziki jaso eta txertatu beharko dira indarrean dagoen legeriak agintzen dituen plangintza-dokumentuetako bidezko ataletan (memoria, informazio planoak, antolaketa planoak eta hirigintza arauak).



Hirugarrenik.- Errezilgo Hiri Antolaketako Plan Orokorra, eta dagokion ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa berregokitu egin beharko dira tramitazioan zehar, Plan Orokorreko xedapen guztiek erakutsi beharreko zehaztasun mailaren arabera; eta egokitze lan horretan aintzat hartu beharko dira, halaber, honako betekizun hauek:

1. **Ingurumen eraginaren atariko txostena betetzen dela egiaztatzen duen memoria.** Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 62. artikuluan ezarritakoari jarraituz, atariko txosten honetan ezarritakoa betetzen dela justifikatzen duen memoria sartu beharko da behin-behineko onespenerako dokumentuan; hau da, atariko txosten honetako xedapenak Hiri Antolaketako Plan Orokorra osatzen duten dokumentuetan nola txertatu diren azaldu beharko da.

2. **Ingurumen eraginaren baterako azterketan jaso beharreko informazio osagarria.** Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketaren atal batzuk osatu egin beharko dira, honako alderdi hauei dagokienez:

2.1. Azterketan egin diren arau eta planei buruzko erreferentziak eguneratu egin behar dira, eta horien ordez gaur egun indarrean dauden arau eta planak aipatu. Eguneratze hori, batik bat, HAPOn ezarritako antolamenduan zuzenean eragiten duten xedapenen kasuan egingo da (esate baterako, Nekazaritza eta basogintzari buruzko Lurraldearen Arloko Plana edo Hernio-Gatzume Kontserbazio Bereziko Zona izendatzea, eta abar), edota HAPOri erantsi behar zaizkion neurri babesgarri eta zuzentzaileen kasuan (112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntzako eta eraisketako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena; 213/2012 Dekretua, urriaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa; eta abar).

2.2. **HAPOk ukitutako eremuaren ingurumenaren azterketa, diagnostikoa eta ingurumen balorazioa** izeneko atalean, osatu egin beharko dira honako alderdi hauek:

- Udalerrian dauden landare-formazio eta habitat interesgarriak identifikatzeaz gain, kontserbatzeko garrantzi berezia erakusten duten baso-masa, unada eta eremu zehatzak ere mugatu egin beharko dira, plangintzaren bitartez babestu ahal izateko.
- Diagnostikoa, esparru narriatuen zerrenda sartuko da (esate baterako, ibai bazterreko landaretzarik ez duten errekek, espezie harrotzek inbaditutako eremuak, azpiegitura abandonatuak, baso degradatuak eta abar), horiek guztiak ingurumena babesteko xedez burutzen diren udal jardueretan, edo ingurumen inpaktuak arintzeko neurri konpentsagarriak zehazterakoan, orientagarriak izan daitezten.
- Udaleko paisaia-ezaugarrien informazio eguneratua jaso behar du diagnostikoak, betiere zerrendan emandako informazioa eta Urola Kostako paisaiari buruzko xedapenak kontuan hartuta.⁽²⁾

2.3. **Teknikoki arrazoizkoak diren hautabideen ingurumen azterketa, eta erabakitako irtenbidearen arrazoiak.**

Azterketa horrek, ingurumen ebaluazio estrategikoaren araudiak exijitzen duenari jarraituz, hautabideen analisi bat jaso beharko du; eta horretan, Planaren helburuei erantzuteko aukera ezberdinak eman, aztertu eta alderatuko dira. Kontuan hartuta, planteatutako jarduketa horien artean inpaktu handiena sortuko dutenak, landa-eremuak eta naturguneak urbanizatzeak eragingo dituen ondorioak izango direla, atal horretan honako azterketak jasoko dira gutxienez:



- Etxebizitzak ezartzeko hautabideen azterketa. Horretarako, etxebizitza premiei erantzuteko behar den lurzoru azalera zehaztu ondoren, txosten honetako 5.1. ataleko aginduei jarraituz, bizitegi horiek kokatzeko aukerak aztertuko dira, betiere kokaleku bakoitzaren kalitatea eta ingurumen hauskortasuna aintzat hartuta, 5.2 atalean adierazi bezala.
- Jarduera ekonomikoak ezartzeko hautabideen azterketa. Besteak beste, Domusan (2. Sektorea) oraindik garatu gabe dagoen lurzoru urbanizagarriari sailkapen hori kentzeko aukera aztertuko da.

2.4. *HAPOn proposatutako jarduketan eraginak identifikatu eta baloratzea.* Ingurumen eraginak identifikatu eta baloratzeari buruzko atala osatu egin beharko da, honako alderdi hauei dagokienez:

- Hiri garapenak gauzatzeak ingurune fisikoan eragingo dituen zuzeneko ondorioez gain aintzat hartu behar dira, halaber, proposatutako antolaketa, zuzen-zuzenean ez bada ere, eragingo dituen ondorioak, eta hiriguneko biztanleria hazteak edota Domusan enpresak ugaritzeak iraunkortasunean izan ditzakeen ondorioak; esate baterako, zuzkidura eta zerbitzu gehiago beharko lirateke, hondakin eta ur zikin gehiago sortuko litzateke, etab.
- Lurzoru urbanizaezina antolatzeko arauak eta jarduera zehatzak HAPOn bitartez finkatzen doazen neurrian, identifikatu eta karakterizatu egin beharko dira antolaketa horrek natur baliabideetan eta nekazaritza baliabideetan eragin ditzaketen ondorioak.
- Nekazaritza ekoizpenaren galera. Proposatutako antolaketa nekazaritza ustiapenetan eta nekazaritza ekoizpenean izango dituen ondorioak aztertu egingo dira. Urbanizazio jarduerak edo bestelakoak gauzatzearen eraginez galduko den nekazaritzako azalera gain, ukitutako ustiapenen kopurua, ustiapen mota eta bakoitzaren ezaugarriak ere adierazi egin beharko dira, ustiapen horiei lotutako pertsona kopurua bezalaxe.

2.5. *Proposatu diren neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak.* HAPOn tramitazioak aurrera egin ahala eta dokumentu horren edukiak zehazten doazen heinean, era zehatzagoan ezarri eta karakterizatuko dira Planean txertatu beharreko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak.

HAPOn antolamendu xehatua definituta utzi zaien area eta sektoreei dagokienez, zehetasun osoz azaldu eta karakterizatuko dira horietako bakoitzean aplikatu beharreko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak. Eta deskripzio horretan, honako datuak jasoko dira, besteak beste: arearen edo sektorearen azalera, eta aipatutako neurriak noiz aplikatuko diren zehazki; eta nori dagokion neurri horiek egikaritzeko eta finantzatzeko erantzukizuna.

Sektorearen antolamendu xehatua plan partzial batean zehazteko uzten bada, arauz aplikatu beharreko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriaren zerrenda jaso beharko da, gutxienez, sektore horri buruzko hirigintza fitxan.

Prebentziozko neurriak, hala nola neurri zuzentzaile edo konpentsagarriak hartzea eskatzen duten ingurumen alderdiak Erreferentziako agiriaren 5.6 atalean aipatutakoak dira.

Jarduketek ingurumen inpaktu nabarmenak eragingo badute edota ingurumen baliabide baliotsuen galera ekarriko badute, egindako kaltea zuzentzeko eta konpontzeko neurriez gain, neurri konpentsagarriak ezarri beharko dira; eta neurri horiek, hala egokituz gero, urbanizazio jarduketaren urbanizazio-zama bezala ezarriko dira. Esate baterako, Domusako industrialdea zabaltzeak, azkenean halakorik egitea erabakitzen bada



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

behintzat, ibai ekosistemari eragingo dion kaltea eta nekazaritzako baliabideen galera konpentsatzeko ekintzak aurreikusi beharko lirarteke.

183/2003 Dekretuak xedatutakoari jarraituz, IEBE txostenean adierazi egin beharko da proposatutako neurriak ezartzearen gutxi gorabeherako kostu ekonomikoa, eta azken batean erabakiko diren neurriak gauzatzeko denbora-plangintza.

- 2.6. *Planaren ondorioak ikuskatzeko eta ingurumen helburuak betetzen direla ziurtatzeko programa.* Eragingo diren inpaktuak eta inpaktu horiek prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak hobeto definitzearen, azterlanean proposatutako Ikuskatze Programa zabaldu eta hobetu egingo da plana zehazten doan neurrian.

Osagarri gisa, adierazle sorta bat definituko da, ingurumen helburuak betetzen direla begiratu ahal izateko. Lortu nahi diren helburuen arabera, adierazle desberdinak erabil daitezke: Tokiko Agenda 21aren iraunkortasun prozesuaren segimenduan erabilitako adierazleak, Hiri plangintza iraunkortasun irizpideekin idazteko eskuliburuan (2005, IHOBE) proposatutakoak, edota HAPOn planteatutako ingurumen helburuetara egokitzen diren beste hainbat.

Nolanahi ere, jarraipena egiteko adierazleen helburuak, atalaseak eta betetze-mailak definitu beharko dira; baita datuak hartzeko eta datu horiek kalkulatzeko programa bat ere.

3. **Ingurumen arloko ohar orokorrak lurralde osorako**

- 3.1. Hiri Antolaketako Plan Orokorrak, udalerrri osoan aplikatzekoak izango diren ingurumena babesteko arau orokorrak ezarriko ditu. Eta araudi orokor hori, bidezko bada, gai honen inguruko ordenantza osagarriak gerora betetzera baldintza daiteke. Arau orokor eta ordenantza horiek, udalerrian lehendik martxan dauden ordenantzak osatzeaz edota eguneratzeaz gain, honako alderdi hauek ere finkatu ahal izango dituzte: biodibertsitatea mantentzea, atmosferaren babesa, berdeguneen eta lurzoru urbanizaezinaren erabilera, hondakin solidoen bilketa eta tratamendua, zaraten eta bibrazioen kontrola, hondakin uren kontrola, eraikuntzek bete beharreko ingurumen baldintzak, paisaiari eta estetikari buruzko baldintzak, energia berriztagarrien erabilera, eragimen energetikoa, telekomunikazioen instalazioak, eta abar. Arau orokorrak eta ordenantzak idazterakoan aintzat hartu beharko dira estatu, erkidego zein foru mailako legeria orokorrak eta sektorialek ezarritako prebentzio neurriak eta ingurumena babestekoak.
- 3.2. HAPOk zarataren aldagaia sartu beharko du udalerrriaren antolamenduan. Horrenbestez, eremu akustikoen zonakatze akustikoa jasoko da, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan aurreikusitako eremuekin bat etorritik. Eta kontuan hartuko dira zorpen akustikoaren zonen definizioa, eta jatorri naturaleko soinuaren erreserbena, aurreko arauen arabera ezarritakoak. Zonakatze akustikoa kartografiaren bidez irudikatu beharko da. Era berean, unitate edo eremu bakoitzeko hirigintza arau partikularrak, dagokion zona akustikoa eta aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburua zehaztu beharko ditu. Kalitate akustikoaren helburuak kontuan hartu beharko dira zona desberdinen zurgapen gaitasuna zehazterakoan.
- 3.3. Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, lur horiek plangintzan sartzerakoan aintzat hartu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorrak, 3/1998 Legeak, 83. eta 84.2 artikuluetan ezarritakoa, eta lurzoria ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legeak, otsailaren 27koak, xedatutakoa. Horrela bada, HAPOk, lurzoria ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legeak,



23. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura burutzeko betebeharrak –edo hala badagokio, aipatutako legearen 24. artikuluan industri erabilerako lurzoruaren gaitasuna zehazteko ezarritako dagoen prozedura burutzeko– jasoko du, bai araudi orokorrean eta bai kutsatuak egon litezkeen lurzoruaren inbentario eguneratua sartuak dauden lurzoruak dituzten area, sektore edo bestelako esparruetako bakoitzaren hirigintza fitxetan.

- 3.4. Ibai ertzei eta erreka ertzei dagokienez, HAPOn aintzat hartu beharko da sare hidrografiko osoa uren jabari publikokoa dela, grafiatua egon ala ez; eta hortaz, ur gaietan indarrean dagoen araudia bete behar duela, nahitaez. Oro har, pasabiderako zorpen eremuari dagokion 5 metro zabaleko lur zerrenda ezin izango da betelantarako erabili, pasabiderako libre egon behar baitu uneoro, inolako trabarik gabe eta natur ingurunearekin lotutako erabileretarako; besteak beste, ibaietako eta ibai bazterretako ekosistema zaintzeko, ur gaitasunari eusteko, eta artapen nahiz salbamendu lanak egiteko.

Era berean, eta HAPOn eta honen garapenerako plangintzan aurreikusitako jarduketek uren jabari publikoan eta beronen zorpen eta kontrolerako zonan eragingo badute, jarduera horiek ibai ibilguen berezko baldintzak mantendu edo berreskuratuko diren moduan gauzatuko dira, jarduketa horiek hartuko dituen lurzoruak edonolako sailkapena eta kalifikazioa duelarik ere. Eta, mantentze nahiz berreskuratze horretan sartzen da EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean (LAP) ezarritako xedapenak eta distantziak mantentzea, ibai bazterreko landaretza mantentzen eta hobetzen saiatzea, bihurtze asko samarreko ibai trazadurak egoki diseinatzea, gaur egun estaliak dauden ibilguak bistan jartzea, ohe kizkurreko ibilguak bere horretan mantentzea, eta abar.

Ur baldintzatzaileak direla-eta, aipatutako eremu horietan aurreikusi diren jarduerak gauzatu ahal izateko ibai bideratzeko eta babesteko obrak egin behar badira, obra horiek ingeniari teknikoaren teknika bigunak lehenetsiz gauzatuko dira. Paisaiaren eta ekologiaren ikuspuntutik begiratuta, ibai ibilguen bazterrek lurraldea egituratzeko elementu gisa izan dezaketen gaitasuna aprobetxatuko da, habitatakt uztartzeko edota jendearen gozamenerako eremuak sortzeko aukera emango duten moduan; hau da, korridore ekologikoak eratzeke erabiliko dira.

- 3.5. HAPOn, gainera, kultura ondarean sartutako ondasun higiezinak zehaztasun osoz identifikatuko dira, bakoitzari dagokion babes araubidea finkatuz: lurzoruaren eta babestu beharreke elementuen erabilera araubidea, jarduketa arkeologikoekin lotutako eraiketen araubidea, partzelatan banatzeko araubidea, zuzenean jarduteke araubidea eta garapen plangintzaren araubidea.
- 3.6. Hiri Antolaketako Plan Orokorreke hirigintza dokumentazioan honakoa adieraziko da espreski: garapen plangintzako baldintza teknikoan agiriak jaso egin beharko dituzte ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren 5.6. eta 5.8. ataletan hurrenez hurren adierazitako babes neurri guztiak eta ingurumena ikuskatzeko programa. Neurri horiek, atariko informe honetako xedapenen arabera egokituko dira, Hiri Antolaketako Plan Orokorrean proposatutako hirigintza garapeneraren bideragarritasuna bermatzearentzat. Gainera, plan partzialetan, plan berezietan, xehetasunezko azterketetan, urbanizazio proiektuetan, eraikuntza proiektuetan eta abarretan jaso beharreke neurri babesgarri eta zuzentzaile horiek guztiak, behar hainbateke xehetasun mailan finkatuko dira, erabat eraginkorrak izan daitezken. Hori horrela, neurri horien aurrekontua egin daitekeen kasuetan, obra-unitate gisa definituko dira, proiektuetan bakoitzari dagokion zenbatespen ekonomikoa adieraziz. Eta aurrekontua egitea ezinezkoa den kasuetan, berriz, baldintza teknikoan agirian sartu beharko dira derrigorrez.

4. Lurzoru urbanizaezinari buruzko xedapenak.



4.1. Lurzoru urbanizaezina mugatzea, kalifikatzea eta bertan ezar daitezkeen erabilerak arautzea

HAPO tramitatzeko prozesuan zehar, lurzoru urbanizaezinean ezar daitezkeen erabilera eta jardueri buruzko araudia zehaztu beharko da, eta horretarako, zona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuko dira, duen harrera-gaitasuna bezalaxe. Xede horri begira, zehaztu eta garatu egingo dira Aurrerapen agirian “Erabilera orokorreko zonak” bezala definitutako antolamendu kategoriak. Era berean, horietako bakoitzean aplikatu beharreko erabilera araubidea zehaztuko da, eta hori ingurune fisikoaren antolamendu matrizean laburbilduko da. Matrize hori egiteko, Lurraldea Antolatze Zuzentzaruetan eta Nekazaritza eta Basogintzari buruzko Lurralde Planean jasotako arauak hartuko dira erreferentziatzat.

Matrize hori izango da udalerriko lurzoru urbanizaezin guztian erabilera eta jardueren etorkizuneko esparru arautzailea; beraz, ahalik eta zehatzena izan beharko du, eta gaur egun dauden edo aurreikusi diren erabilera eta jarduera guztiak arautuko ditu –lehenengo sektoreari dagozkionak eta ez dagozkionak-, baita zona bakoitzak duen harrera-gaitasunaren arabera horiek mantentzea, lekuz aldatzea edo kentzea komeni den ere.

Lurzorua aurreko kategoria horien arabera sailkatu ondoren, aplikagarriak gertatzen diren *baldintzatzaile gainjarrietatik* ondorioztatzen diren erabilera-mugak ezarriko dira.

Bai antolamendu kategoriak eta bai baldintzatzaile gainjarriak planoetan adieraziko dira, eskala egokian betiere.

Kategoriak egoki esleitzeko, hau da, ingurumeneko eta nekazaritzako baliabideak behar bezala babestuko direla bermatuko den moduan, eta area bakoitzean gara daitezkeen erabileren eta jardueren erregulazio garbia ezartzeko bidea eman duen kategoria-esleipena egiteko, udalerriko lurzoru urbanizaezinen diagnostiko egoki batetik abiatu beharko da, ingurumeneko eta nekazaritzako baliabideak baloratu eta zona bakoitzean izan daitezkeen gehieneko mugak eta baldintzatzaileak identifikatuko dituen diagnostiko batetik, hain zuzen. Arau esparrua zehazturik, eta egindako diagnostikoa oinarritzat hartuta, arau horiek aplikatzerakoan honako irizpide hauei jarraitzea gomendatzen dugu:

- Errezilgo udalerraren zati handi bat ES2120008 HERNIO-GATZUME Kontserbazio Bereziko Eremuan dago; horregatik, HAPOn bitartez ezarritako antolamenduak bateragarria izan behar du eremu hori halakotzat izendatu zuen 219/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, I. eranskinean definitutako zonakatzearekin, eta era berean, dekretu horretan aurreikusitako kontserbazio neurriak aplikatzeko bidea erraztu behar du.

HAPOn araudiak, bestetik, honakoa adierazi behar du espreski: Hernio-Gatzume kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketarekin zuzenean lotua ez egon arren, edota kudeaketa horretarako beharrezkoa ez izan arren, banaka edo beste plan edo proiektuekin batera KBE horretan nabarmen eragin lezakeen plan edo proiektu orok, eragin ditzakeen ondorio guztiak behar bezala aztertu beharko dituela.

- Nekazaritza eta abeltzaintzarako *gaitasun estrategiko handia* antolamendu azpikategoria, nekazaritza eta basogintzari buruzko LAPean halakotzat hartutako eremuari aplikatu beharko zaie gutxienez; baita beren modernotasun, errentagarritasun edo iraunkortasunagatik, sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza ustiapeneko lursailak ere. Eta horiek, erreferentziako agirian eskatu ziren izen berarekin identifikatu beharko dira.
- Kontserbazio Bereziko Eremuez kanpo egon arren, hobekien kontserbatuak dauden baso erdi-naturalak ere (hariztiak, haltzadiak eta pagadiak) *Babes berezia* kategorian sartu beharko lirateke, eta Lurraldea Antolatze Zuzentzaruetan gai honi buruz ezarritako irizpidea aplikatu. Udalak, ahal dela behintzat, baliorik handieneko baso-masen eta unaden kontserbazio aktiboa egiteko neurriak aplikatuko ditu; esate baterako, titularitate pribatukoak diren eta balio



ekologiko handia duten basoak udalaren lur ondarean sartuta, edota lurraldea zaintzeko akordioak ezarrita, baso horiek kontserbatuko direla eta baso-masa helduagoak osatzera iritsiko direla bermatuko den moduan. Hori horrela, berriazko diagnostiko bat egitea gomendatzen dugu, kontserbatzeko baliorik handiena erakusten duten unadak identifikatzeko; besteak beste, udal barrutiaren ekialdeko ibarrean dauden pagadi eta hariztiak.

- Eremu degradatuak, gaur egun lur gutxi edo higadura-arrasto handiak dauzkatenak, ahalik eta arinen hobekuntza eta berreskuratze lanak eskatzen dituztenak, *ingurumenaren hobekuntza* kategorian sartuko dira.
- *Basogintza* kategoriaren barruan, ahal bada behintzat, berriazko araudia bereizi eta ezarriko da: ekoizpenerako mantentzen diren baso landaketentzako batetik, eta berezkotasun handiagoa edota babes izaera handiagoa duten masentzako bestetik.

4.2. Lurzoru urbanizaezinerako araudia

Atariko txosten honetako 3.1 apartatuan adierazitakoaren arabera, lurzoru ez-urbanizagarriaren erabilerrari buruz eratu beharko diren ingurumenaren babeserako arau orokorrak (eta ordenantza osagarriak, halakorik izanez gero), honako xedapen hauek aintzat hartuz idatzi beharko dira:

- a) Etxebizitzak lurzoru urbanizaezinean. Arauek berriaz bermatu behar dute, lur eremu urbanizaezineko zona guzti-guztietan Lurraldea Antolatze Zuzendarauetan ezarritakoa beteko dela, hau da, debekatua dagoela nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatzei lotu gabeko etxebizitzak hartuko dituzten eraikin berriak egitea. Arauek, halaber, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 31. artikuluan ezarritako araua jasoko dute, baratze edo abeltzaintzako ustiatzei lotutako etxebizitza berriak eraikitze baimenei dagokienez.
- b) Arau orokorrek berriaz jaso behar dituzte, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatze Lurraldearen Arloko Planean, eta beroren aldaketan ezarritako tramitazio baldintzak uren, hirigintzaren eta ingurumenaren arloan.
- c) Nekazaritza eta basogintzari buruzko LAParen arabera *higadura arriskua duten eremuetan*, bertan ezarriko diren jarduerak eragin ditzaketen natura arriskuak ekiditeko beharrezkoak diren mugak ezarriko dira. Hori horrela, honako irizpide hauei jarraitzea gomendatzen dugu:
 - Eremu hauetan, ahal dela behintzat, ez da lur-erazketarik egingo, lurrazaleko eta lurpeko drainatze sareak ez dira aldatuko, eta landaretzaren desagertzea ekidingo da; aitzitik, zuhaitzik gabeko guneen basoberritzea bultzatuko da, abeltzaintza erabilera aipatutako helburu hori lortzera baldintzatuz.
 - Eremu horietan burutzen diren baso jarduerak, baliabide edafikoen kontserbazioa bermatuko duten babes basoak sortzera bideratuko dira, ahal dela hazkunde ertain edo moteleko zuhaitzak landatuz eta sasi-garbiketa estentsiboak eta lurketak ahal bezainbat murriztuz. Era berean, landaketarako makineria erabili ordez, eskuz egingo da eta, mozketari dagokionez, metodo progresiboak lehenetsiko dira, hau da, erabateko mozketen ordez, bakanketak egingo dira; hala eta guztiz ere, agintari eskudunek ezinbesteko baimenetan ezarritakoa beteko da.
- d) *Landaretza*:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

- Lur eremu urbanizaezinean ezarri beharreko sarbide berriak, azpiegiturak, zerbitzuak eta eraikinak, landaretza interesgarriak ukituko ez diren moduan gauzatuko dira.
- Lehendik zutik dauden zuhaitz ikusgarriak eta urtetsuak errespetatu egingo dira. Jardueraren batek derrigorrean eragin behar badio aleren bati, zuhaitza beste zona batean kokatzeko aukera aztertuko da, baldin eta teknikari gaitu batek bermatzen badu birkokatze prozesu horren ondotik bizirik segitzeko behar beste probabilitate baduela. Zuhaitza nahitaez moztu behar dela erabakitzen bada, eragindako galera hori nolabait konpentsatuko duten neurriak finkatu beharko dira.
- Elkarrengandik aparte dauden landaretza autoktonoko eremuak elkarri lotzeko ahaleginak egingo dira; horrez gain, zuhaiztiak, heskaiak, landare-pantailak, erreka bazterretako landaretza eta nekazaritzako finken nahiz belardien mugak mantendu edota sortuko dira; era berean, ahal delarik, landaketetan zuhaitzak eta zuhaixkak tartekatuko dira.

e) Fauna:

- Partzelen itxiturak basabereen joan-etorri librean eragotziko ez den moduan egingo dira.
- Bide berriak egiterakoan, abereentzako pasabide artifizialak eraikiko dira, bide horiek abereak maiz ibiltzen diren tokietan egiten badira behintzat.
- Airetiko energia-sareak ezartzerakoan, hegaztiak linea horiek jo eta elektrokutatze arriskua ekidingo duten babes neurriak ipiniko dira.

f) Ibai sarea:

- Estolda-sare orokorrerako hartunea egitea ezinezkoa gertatzen den kasuetan, lurzoru urbanizaezineko etxeetan eta nekazaritza zein abeltzaintzako jardueretan sortutako ur zikinak arazteko sistema autonomoak ipini beharko dira. Aipatutako arazketa sistema horiek behar bezala funtzionatzen dutela frogatu arte ez da emango eraikitze lizentziarik.
- Indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraituz (besteak beste 515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategiek bete beharreko arau teknikoak, hala nola higiene, osasun eta ingurumen alorrekoak ezartzen dituenak), ibai ibilguak nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan sortutako hondakinetatik (minda, simaurra, produktu fitosanitarioak, eta abar) babesteko beharrezkoak diren baldintzak ezarriko dira (jardunbide egokien kodea, ibai ibilguen ondoan ongarririk bota ezin den edota produktu fitosanitariorik erabili ezin den gutxieneko babes-banda, eta abar).

g) Paisaia eta ingurumenean txertatzea:

- Era guztietako hondeaketetan, jarduera horrek zuzenean edo zeharka uki dezakeen landare-lurraren goiko geruza berreskuratuko da, geroago leheneratze prozesuetan erabili ahal izateko. Horrela lortzen diren lur emankorrak, obraren inguruko eremuetan baina ur ibilguetatik eta hustubideetatik urrun metatuko dira, 2 m-tik gorako altuera gaindituko ez duten pilak eginez, airezta daitezen eta trinkotu ez daitezen. Landare kolonizazioko prozesuei laguntzeko, jabetzak mantenduko direla ziurtatzeko sistema bat ezarriko da; eta, beharrezkoa izanez gero ereite, ureztatze eta aldian aldiko ongarriztatze lanak egingo dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

- Lurzoru urbanizaezineko etxe eta eraikuntza berriak, landa ingurunean lehendik dagoen eraikuntza tipologiara egokituko dira, beti ere paisaian behar bezala txerta daitezen saiatuz. Arreta berezia jarriko zaie, besteak beste, eraikuntzaren dimentsio eta egiturari, eta erabilitako material eta koloreei.
 - Ahal bada behintzat, jarduketetan ez da sartuko behar-beharrezkoa ez den lerro zuzenik.
 - Behar-beharrezkoak diren landabide eta basobide berriak bakarrik egingo dira; aurrez, dena den, bestelako irtenbiderik badagoen aztertuko da; eta, edozein kasutan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorrak, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, ezarritakoa betez, aldeztatik ingurumen eraginaren azterketa erraztua egingo da.
 - Paisaia zaharberritzeko jarduketetan, espezie autoktonoak eta lehengo paisaiari hobekien lotzen zaizkion espezieak erabiliko dira nagusiki, jarduketa geometrikoak baztertuz eta, ertz zehaztugabeko basoberritzeak eta landaketak eginez.
 - Beharrezkoak diren ezpondak ahalik eta etzanen ipiniko dira, gaina izurtua eta kizkur antzean utziz, paisaian hobeto txerta daitezen. Ezponda horiek egonkortu behar badira, egonkortzeko teknika "bizietara" joko da (aldaxkatzea, egur xeheak, zurezko bilbadurak, murru berdeak eta abar). Eustormak egin behar diren kasuetan, ahal bada behintzat elkarren gainean jarritako harriez egingo dira, zimendurik gabe.
 - Argindarraren hariteria, ahal dela neurrian, lurpekoa izango da; eta, nolahi ere, aukeran dauden hautabide guztiak ondo aztertu ondoren, ingurunean inpakturik txikiena eragingo duten moduan ipiniko dira.
- h) *Errepideak, bideak eta pistak landa eremuan:* Azpiegitura hauetarako baimen eskaerako dokumentazioak, bide berriak zerbitzatu duen zonaren irisgarritasuna bermatzeko beste irtenbiderik ez dagoela justifikatzen duen agiri bat jasoko beharko du. Eta, horrekin batera, egin daitezkeen trazadura desberdinen azterketa bat eta aukera horietako bakoitzak eragingo duen ingurumen eraginaren ebaluaketa erraztua aurkeztuko dira. Edonola ere, behar-beharrezkoak diren landabide eta basobide berriak bakarrik egingo dira; eta, baimena eman aurretik bestelako irtenbiderik ez dagoen kasuetan bakarrik.
- i) *Berotegiak:* Berotegien proiektuak baimentzerakoan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- Berotegien neurriak eta antolaera zehazterakoan, behar-beharrezkoak ez diren lerro zuzenak baztertuko dituen hautabideari helduko zaio.
 - Berotegia paisaian txertatzen lagunduko duten heskaiak eta antzeko elementuak ipiniko dira, ahal den neurrian.
 - Ahal bada behintzat, ez dira ipiniko bista-bistako lekuetan, paisaiari begiratzean erraz ikus daitezkeen guneetan edota zeruertzeko lerroan.
 - Konpostatzeko instalazio bat izango dute, ustiatzean sortutako landare-hondakin guztiak tratatzeko moduko gaitasuna izango duena.



- Gainerako hondakin solidoak, kontaminazio arriskurik edo ingurumenean kalterik eragingo ez duten moduan gorde, eta indarrean dagoen araudiak agintzen duenari jarraituz kudeatuko dira. Debeak dago hondakin horiek aire librean erretzea.

5. **Hiri-lurzoruari eta lurzoru urbanizagarriari buruzko xedapenak**

- 5.1. *Bizitegirako kuantifikazioa.* Udal barrutian proposatutako etxebizitza kopurua, eta kopuru horrek izango duen lurralde banaketa, epe jakin bati begira (normalean, zortzi urte) antzeman diren eta espero diren premietara egokitu beharko litzateke, beti ere lurraldearen iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta. Beraz, lurraldearen gaitasunean eta dituen baliabideetan ondorio kaltegarriak ekar ditzaketen gain-dimentsioak saihestu egin beharko lirateke, eta lurralde plangintzak gai honen inguruan ezarritako xedapenak era haztatuan aplikatu.

Beraz, HAPOk azken batean proposatzen duen hiri hazkundeak arrazoi sendoetan oinarritua egon behar du, udalerraren lurralde berezitasunak, sozialak eta demografikoak kontuan hartuta betiere. Proposamen hori kuantifikatzerakoan, area eta sektore guztietan garatzeke dagoen bizitegi-gaitasuna ere aintzat hartu beharko da, HAPOk egindako mugaketatik ondorioztatzen denari bakarrari begiratu gabe.

- 5.2. *Bizitegirako lurzoru urbanizagarria sailkatzea.* HAPOren indarraldiari begira, aipatutako irizpideei jarraituz etxebizitza berrien premiak zenbatetsi ostean, premia horiek betetzeko lurzoru urbanizagarri berria sailkatu behar den ala ez erabakiko da, betiere berezko lurzoruaren eta nekazaritza lurzoruaren kontsumoa ahalik eta gehien murrizteko printzipioari eutsiz. Ildo horretan, lehendik sailkatuak dauden esparruak eta sektoreak Plan Orokorren bitartez dentsifikatzeko aukera aztertuko da. Ikusten bada bizitegirako lurzoru berria sailkatu beharra dagoela, garapen berriak kokatzeko hautabide desberdinak urbanistikoki eraldatzeak sortuko dituen ingurumen eraginak aztertuko dira. Kokaleku bakoitzaren eraginak identifikatu ostean, kokalekuak alderatu egingo dira, bakoitzaren kalitatea eta hauskortasuna aintzat hartuta.
- 5.3. *Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria.* Aurrekoaren antzera, Errezilen jarduera ekonomikoak ezartzeko dagoen benetako premia aztertzea komeni da; eta horretarako, bizi dugun egoera sozio-ekonomiko berria eta erabilera industrialetarako lur eskarian gerta daitekeen gorabehera aintzat hartzea. Ondorio horien arabera, lurralde iraunkortasunaren ikuspegitik Domusako 2. Sektorea mantentzea komeni den ala ez aztertu behar da; edota egokiagoa ote den lurzoruari oraingo sailkapena kentzea eta paraje honetako ingurumen, nekazaritza eta paisaia arloko baliabideak kontserbatzea.
- 5.4. Hiri Antolaketako Plan Orokorrek, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian planteatutako esparru guztiei dagokienez, bidezko neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak jasoko ditu area edo sektore bakoitzaren hirigintza arau berezietan; hau da, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketan, area edo sektore bakoitzerako berariaz diseinatutako neurriak, alegia. Hirigintza fitxetan, halaber, esparru horietako eraikinek eta hirigintzak hurbileneko ibai ibilguetatik izango dituzten gutxieneko distantziak adierazi beharko dira, bai idatzizko testuan eta bai testu horri lotutako dokumentazio grafikoan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako tartek betetzen direla ikus dadin.
- 5.5. Lurzoru urbanizagarrien garapenerako egiten diren plan partzialak gauzatzeko beharrezkoak diren urbanizazio proiektuek, ingurumena eta paisaia berreskuratzeko proiektu bat jasoko dute. Eta proiektu horrek, besteak beste, honako hauek hartuko ditu:



- Obrak egiterakoan eta jarduera osagarriak gauzatzekoan ukituko diren eremuen azterlana, esate baterako: instalazio lagungarriak, zabortegei eta hondakindegiei berriak, obretan erabili beharreko materialen erauzketa guneak, lur gaineko ura drainatzeko sarea, obrarako sarbideak eta obrarako egindako bideak, eta abar.
- Ukitutako eremuan gauzatu beharreko jarduerak, area hori paisaian txertatze aldera, honako alderdi hauek bereziaz zainduz: lur gaineko ura drainatzeko sare berria, sektorea ibai ibilguen ertzak aintzat hartuz eta zonaren orografiaren arabera behar den moduan txertatzea (ezponda etzanak diseinatuz, ezpondak egonkortzeko teknika "biziak" erabiliz), eremu zolagarriak mugatzea, natur interesa izan dezaketen zuhaitzen gaineko eragina murriztea, landaretza berreskuratzeko erabiliko diren landare espezieen deskripzioa eta landaretza hori ezartzeko eta mantentzeko erabiliko diren sistemen azalpena, espezie horiek baldintza bioklimatikoetara eta luraren ezaugarrietara egokitu behar baitute, eta abar.

5.6. Hiri Antolaketako Plan Orokorrak beste betebeharrak ere ezarriko du, alegia, lurzoru urbanizagarriko egiten diren plan partzialek eta urbanizazio proiektuek behar bezala erabaki beharko dituztela esparru hauetan beharrezkoak diren hiri-zerbitzuek eta azpiegiturek udal barrutiko sare orokorrerako izango dituzten hartuneak (ur, argindar, gas, telefonia, estolda sare, sarbide, garraio publiko eta abarrekiko hartuneak); eta, gainera, eskaera horiei guztiei erantzuteko gaitasuna badagoela frogatu beharko dute. Beraz, behar bezala arrazoitu beharko da:

- Plan partzialetan erabakitakoa betetzeko behar den ur emaria badagoela, eremu honetako ur baliabideetan eragin kaltegarri nabarmenik sortu gabe.
- Urbanizatzeko eremu bakoitzean saneamendu eta hornidura sareak egokiak direla. Hustu beharreko emariak pila daitezkeela kontuan izanik, eta hornidura nahiz estolda sareen presioa eta emariak aurreikusiz, gainerako hiri-lurzoruek edo lurzoru urbanizagarriek izan dezaketen eragina ere aintzat hartuko da, sareek gainezka egiteko arriskurik izan ez dezaten. Saneamendu sarea eta euri uren sarea bereizita daudela. Esparru urbanizagarri berrietan sortuko diren hondakin urak saneamendu sare orokorrera eramango dira; horiek, beti ere, kasuan kasuko baimenean ezarritako isurketa baldintzak beteko dituzte.
- Esparru urbanizagarri berrietara sartzeko behar den bide-gaitasuna badagoela, sarbide horiek zein maiztasunekin erabiliko diren kontuan hartuta; hau da, esparru horien eta udalerrien gainerakoaren artean dauden sarbide eta mugikortasun arazoak behar bezala konponduko direla, alegia. Bermatu beharko da, oinezkoek eta bizikletek irisgarritasun egokia izango dutela eremu horietara.

Laugarrenik.- Ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak 7.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ingurumen eraginaren atariko txosten honek eta Hiri Antolaketako Plan Orokorra osatzen duten gainerako agiri guztiek, indarrean dagoen legeriaren arabera plangintza onartzeko bete beharreko jendaurreko informazio izapideak bete beharko dituzte.

Donostian, 2015eko azaroaren ...

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Sin.: Félix Asensio Robles

(1)

http://www4.gipuzkoa.eus/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/adj/documentacion/Documento_referencia_PGOU_Errezil_eu_es.pdf

(2)

https://www.euskadi.eus/r49-cpaisaia/es/contenidos/informacion/paisaia_2011_urola_kosta/es_paisaia/indice.html